LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO

Herritar estimatu hori:

Lehenbiziko aldiz, Lasarte-Oriako Udalak **partaidetza-prozesu bat egingo du 2017ko udaleko aurrekontuak lantzeko**, eta zuk ere parte hartzea nahi dugu.

Aurten **500.000 euroko kontu-sail bat erreserbatu dugu**, gure udalerrian beharrezkoak diren inbertsioak gauzatzeko. Honekin batera bidaltzen dizugun orrian, **Udaletik garrantzizkotzat jotzen ditugun inbertsioen lau proposamen egiten dizkizugu, eta horiez gain zerorrek hautatutakoren bat proposatzeko aukera ere ematen dizugu**. Jarraitu beharreko prozedura oso erraza da: eman 1etik 5era puntu horietako bakoitzari, 5a zure iritziz garrantzi gehien duena izanik eta 1a gutxien duena. Behin orri hori betetakoan, udalaren zenbait eraikinetan parte hartzeko jarrita dauden postontzietan utzi ahalko duzu (udaletxe zaharrean, kiroldegi munizipalean, kulturetxean eta osasun-zentroan) otsailaren 8a baino lehen.

**Herritarren boto-kopuru gehien jasotzen duen proposamena udalaren 2017ko aurrekontuetan sartuko da, aurrera eramateko.**

Parte-hartzaile guztiak adin nagusikoak eta gure herriko bizilagunak direla egiaztatu ahal izateko, zeure izen-deiturak eta DNIaren zenbakia ere jarri beharko dituzu parte hartzeko orrian.

**Espero dut esperientzia berri honetan parte hartzera animatuko zarela**, guztion artean administrazio irekiago bat lortzeko.

Agur bero bat.

Estimado/a vecino/a:

Por primera vez el Ayuntamiento de Lasarte-Oria va a realizar un **proceso participativo para la elaboración de los presupuestos municipales** de 2017 y queremos contar contigo.

Este año **hemos reservado una partida económica de 500.000 euros** para la ejecución de inversiones necesarias en nuestro municipio. En la hoja que te adjuntamos, **te proponemos cuatro propuestas de inversión que desde el Ayuntamiento consideramos importantes más la opción de que tú nos puedas aportar alguna más de tu libre elección**. El procedimiento a seguir es muy sencillo: puntúa del 1 al 5 cada una de ellas siendo el 5 la más importante según tu criterio y el 1 la que menos. Una vez que hayas rellenado la hoja adjunta la podrás depositar en los buzones de participación que están situados en diferentes edificios municipales (Ayuntamiento viejo, Polideportivo Municipal, Casa de Cultura y Ambulatorio) antes del 8 de febrero.

**Aquella propuesta que tenga mayor número de votos de la ciudadanía será incluida en los presupuestos municipales del 2017 para su ejecución.**

Para poder comprobar que todas las personas participantes son mayores de edad y residentes en nuestra localidad, deberás añadir también tu nombre y apellidos así como el número de DNI en la hoja de participación.

**Espero que te animes a participar en esta nueva experiencia** para lograr entre todos y todas una administración más abierta.

Un saludo.

Lasarte-Orian, 2016ko abenduaren 15ean,

Lasarte-Oriako alkateak / Alcalde de Lasarte-Oria

LASARTE-ORIA UDALA-AYUNTAMIENTO ALKATETZA

Jesus Zaballos de Llanos